

irailak 17

# EUSKAL JAIA



Karrozen ibilaldia

URRETXU 2023

17:30

KARROZEN IBILALDI IKUSGARRIAren hasiera.  
Irteera Mugitegi industrialdeatik izango da.

Azpeitiko “Itsasi” Zanpantzar taldea  
Tolosako eta Urretxuko “Iratzarri” dultzaineroak  
Bergara, Legazpi, Ordizia eta Urretxuko erraldoiak  
Urretxuko “Lizarriturri” Txistulari taldea

## 1 | ORAINDIK BAGARA **kuadrillaren karroza**

### KANTUZ

Kantatzen duen herria ez dela hilko esan omen zuen aspaldiko koblakari ezezagun batek, eta kantu bat garela oraingo bertsolari aski ezagun horrek. Kantuak poza nahiz tristura ematen dizkigu – bizi- zia, finean- eta zizelkatu egiten gaitu, gure nortasun individual zein kolektiboa osatuz. Eskuzabalak dira oso kantugileak: erraietako sentimenduak lau haizetara bota eta libre uzten dituzte, edonork arnastu eta, hala nahi izanez gero, berriro aieratu ditzan. Horrela joan gara elikatzen belaualdiz- belaualdi, doinu eta erritmo anitzez jantzitako abestiak une zoriontsu zein latzetan lagun. Jarrai dezala haizeak era guztietako kantuak ekartzen, eta jarrai dezala jendeak horiek berriro aieratzen.

### CANTANDO

Pueblo que canta no muere, dicen que dijo hace tiempo un desconocido juglar, y que somos un canto, más recientemente, un conocido bersolari. El canto nos trae tanto tristeza como alegría –en definitiva, vida- y nos modela, conformando nuestra personalidad tanto individual como colectiva. Los creadores de canciones son muy generosos, pues lanzan al viento sus más íntimos sentimientos, para que cualquiera los respire y, de así desealarlo, los devuelva al aire de nuevo. De este modo nos hemos ido alimentando de generación en generación de canciones hechas con melodías y ritmos muy diversos, y que nos han acompañado tanto en los momentos felices como en los amargos. Que siga trayendo el viento canciones de toda clase, y que la gente continúe devolviéndose las.

## Lurra Dantza Taldea

## 2 | TG **kuadrillaren karroza**

### EMOZIOAK BIZIRIK

Osasun mentala funtsezko faktore bat da gure ongizate emozional zein fisikorako. Horretarako, ezinbestekoa da gure emozio guztiak kudeatzen eta ezagutzen jakitea, haien arteko oreka izateaz gain. Gure karrozan irudikatutako “Del Reves” pelikularen bidez, emozioek guregan sortzen duten eragina eta garrantzia ikusarazi nahi dugu.

## LAS EMOCIONES, VIVAS

La salud mental es un factor fundamental para nuestro bienestar tanto emocional como físico. Para ello es imprescindible saber gestionar y conocer todas nuestras emociones, además de tener un balance entre ellas.

A través de la película "Del Reves", representada en nuestra carroza, queremos visibilizar la importancia junto al impacto que generan las emociones en todos nosotros.

## TG kuadrillaren trikitalariak

### 3 | KOXK kuadrillaren karroza

#### MILIOIKA AITZAKI

Noizbait pentsatu al duzu zer demontre gertatzen ari den zure alboan duzun persona horren buruaren barruan? Bere barnea zurearen antzekoa al den?

Norbanakoaren interes eta kezak desberdinak izan daitezke, baina datuen arabera, badagoga gaur egungo gazteriaren gehiengoari erasotzen dion arazo larri jakin bat: osasun mentala. OME (Osasunaren Mundu Erakunde) erakundeak dioenez, urtero 700.000 pertsonak egiten dute bere buruaz beste. Beldurgarria ezta?

Zoritxarrez, hau irakurtzen duen ia pertsona orok ezagutuko du osasun mentalari lotutako arazo edo gaixotasun bat dakarren pertsonaren bat, zeren milioika pertsona dira bere gogoak hankaz gora dituztenak. Batzuetan soinu eta anabasa gehiegi dute barnean. Desoreka, ezinegona. Beste batzuetan aldiz, isiltasuna eta iluntasuna dira errege-erregin. Milioika pertsona dira garrasi isil baten bitartez laguntza erregutzen ari direnak eta milioika aitzaki dira arazo hau kaxoi zahar eta kirasdun baten izkinean gordetzeko gobernua eta gizarteak erabiltzen dituztenak.

Aski da! Saia gaitzen gizarte oparo bat lortzen. Laguntzaren beharrean gaude, eta hori ez baduzue ulertzen, arazoa ez dugu guk soilik.

#### MILLONES DE EXCUSAS

¿Alguna vez has pensado lo que podría estar pensando esa persona que tienes al lado? ¿Si su interior es igual al tuyo?

Los intereses y preocupaciones de cada uno son diferentes pero según los datos, existe un grave problema que afecta a la gran mayoría de los jóvenes: la salud mental.

Según la OMS (Organización Mundial de la Salud), cada año 700.000 personas deciden suicidarse. ¿Preocupante verdad?

Por desgracia, la mayoría de personas que leen esto probablemente conozcan a alguien que esté sufriendo de enfermedades o problemas mentales, ya que son miles las personas que tienen su mundo interior y pensamientos patas arriba. A veces tienen demasiado ruido y desorden en su interior. Desequilibrio, malestar. En otras ocasiones, el silencio y la oscuridad los dominan. Son millones de personas las que imploran ayuda mediante un grito silencioso y millones las que utilizan el gobierno y la sociedad para guardar este problema en la esquina de un viejo y maloliente cajón.

¡Basta! Tratemos de conseguir una sociedad próspera. Necesitamos ayuda, y si no lo entienden, el problema no lo tenemos solo nosotros.

## KOXK kuadrillaren trikitalariak

## 4 | BPBM+MAE kuadrillaren karroza

### GORPUTZEN SALEROSKETA

Haurdunaldi subrogatua kezka etiko zein sozialak dakartzan gai korapilatsu eta polemikoa dugu. Praktika honek gizabanakoen merkantilizazioa planteatzen du, eta emakumeen gorputza produktu gisa ikustea eragiten du, gizatasuna kentzen dien bitartean. Oinarrizko eskubideak kentzeaz gain, esplotazioa eta desberdinkeria ere bultzatzen ditu.

Subrogazioak egoera kaxkarrean dauden emakumeen desesperazio eta ezegonkortasun ekonomikoari probetxu ateratzen dio, zeintzuetatik asko herrialde txiro eta azpigaratuetatik datozen. Emakume hauek bulnerabilitate egoera batean egonik, irtenbide gisa ikusten dute beren gorputza alokatzea bertatik dirua irabazteko eta, horrela, biziraun ahal izateko. Beren premia eta eskubi-deak probetxu ekonomiko hutsak itozten ditu.

Argi dago mota honetako praktikek bi pertsonen arteko botere harreman bat finkatzen dutela, non emakume subrogatua menpe gelditzen den eta bestearen nahiak asetzeko tresna gisa ikusten den. Gainera, ez zaie inolako babes legalik eskaintzen sinatzen dituzten kontratuetan.

Haurdunaldi subrogatuak pobrezia egoeran dauden pertsoneri laguntzeko irtenbideak eskaini ordez, hauen egoera kaxkartzen dute eta,aldi berean, botere ekonomikoa duten horiei mesede egiten die.

Gizarte justu bat lortzeko, subrogazioa bezalako praktikak alboratu behar ditugu eta beste alternatiba batzuk bilatu, gizabanako ororen eskubideak eta duintasuna errespetatuko dituztenak. Horretarako, argi izan behar dugu ume bat edukitzea ez dela eskubide bat.

## Irrintzi Dantza Taldea

## 5 | BBB kuadrillaren karroza

### AUKERA EZEAN, BESTE PLANETA BATEN BIDEAN

Gaur egun, gazteek duten erronka nagusietako bat da etxebizitza lortzea. Gehienek zailtasun handiak dituzte gurasoen etxetik irten eta beren kabuz ezartzeko. Badirudi emantzipatzeko ideia soila beste planeta batera emigratzea bezain konplexua den mundu batean bizi garela. Ondasun eta zerbitzu mota guztien prezio altuak eta kostu neurrigabeak direla eta, ia ezinezkoa da hain desiratua dagoen autonomia lortzea.

Nahitaezkoa da gizarteak eta erabakiak hartzeko arduradunek egoera horren kontzientzia hartzea eta konponbideak bilatzea, gazteek hegan egin ahal izan dezaten. Horregatik, gazteek etxebizitza duina eta eskuragarria aldarrikatzen dugu.

### EN BUSCA DE OTRO PLANETA ANTE LA FALTA DE OPORTUNIDADES

En la actualidad, uno de los principales desafíos a los que se enfrentan las personas jóvenes es la vivienda. La mayoría tienen grandes dificultades para independizarse y establecerse por su cuenta. Parece que nos encontramos en un mundo donde la simple idea de emanciparse se ha vuelto tan compleja como emigrar a otro planeta. Los altos precios y costes desorbitados de todo tipo de bienes y servicios hacen que sea casi inalcanzable alcanzar la tan ansiada autonomía.

Es imperativo que la sociedad y los responsables de la toma de decisiones tomen conciencia de esta situación y busquen soluciones que permitan a los jóvenes alzar el vuelo. Por ello, las personas jóvenes reivindicamos una vivienda digna y asequible.

## BBB kuadrillaren trikitilariak

## 6 | BPG kuadrillaren karroza

### **DISNEY 100 URTE - EZ GARA EZ PRINTZE EZ PRINTZESA**

Disney megakonpainiak saltzen duen errugabetasunaren ondorioz marrazki bizidunen azterketa kritikoa egitea zailtzen du. Nahiz eta gure bizitzara dibertsioa eta umorea ekarri duen, sortu duen kultura, balore kontserbadorez gainezka dago, estereotipo finko eta tradizioanlak inposatuz.

Zer da pentsatu duzun lehenengo gauza Disney hitza entzutean? Askok haurtzaroan, dibertsioan eta inozentzian pentsatzen dugu. Horrela bada, Disney-ek saldu nahi duen irudia onartzen egongo gara. Aldiz, interesgarria izan daiteke jakitea hasiera batean Walt Disney-ek sortutako marrazki bizidunak ez zeudela haurrei zuzenduta, eta haien istorietan ikusleei irri egitea bilatzen zuela, gizartean gaizki ikusiak zeuden egoerekin, pertsonaia ospetsuen karikatuzazioarekin eta kritika sozialeko zenbait elementu hartzen zituen istorioekin.

Denok ezagutzen ditugun filmek emakumezkoen eta gizonzkoen modeloak ezarri dituzte. Emakumezkoen pertsonaien kasuan, edertasuna lortzeko motibazioa azpimarratzen zen, kasu guztietan gizonen menpekoak izanik. Gizonzkoak konportamendu misoginoek izaten azaltzen ziren, indar-lanak eginez eta indarkeria-tarteko, amaierak ebatziz. Jeloskortasun, arrazakeria, hierarkizazio soziala eta amaiera zoriontsuek hainbat belaunaldi blaitu dituzte, pertsonengan sinesmen idealak sortuz, non urte askotan printze eta printzesa perfektuak bilatu diren.

---

### **DISNEY CUMPLE 100 AÑOS - NO SOMOS PRÍNCIPES NI PRINCESAS**

La mega compañía Disney dificulta el análisis crítico de los dibujos animados debido a la inocencia que vende. Aunque ha traído diversión y humor a nuestra vida, la cultura que ha creado está saturada de valores conservadores, imponiendo estereotipos fijos y tradicionalistas.

¿Qué es lo primero que han pensado al oír la palabra Disney? Muchos pensamos en la infancia, en la diversión y en la inocencia. Si es así, estaremos aceptando la imagen que Disney quiere vender. En cambio, puede ser interesante saber que los dibujos animados creados inicialmente por Walt Disney no estaban dirigidos a niños y que en sus historias buscaba sonreír al público con situaciones mal vistas en la sociedad, con la caracterización de personajes famosos y con historias que abarcan ciertos elementos de crítica social.

Las películas que todos conocemos han establecido modelos femeninos y masculinos. En el caso de los personajes femeninos, se hacía hincapié en la motivación para conseguir la belleza, siendo en todos los casos dependientes de los hombres. Los hombres protagonizaban comportamientos misóginos, haciendo uso de la fuerza y resolviendo los finales mediante la violencia. Los celos, el racismo, la jerarquización social y los finales felices han impregnado a varias generaciones, creando creencias ideales en las personas, donde durante muchos años se han buscado príncipes y princesas perfectas.

---

## BPG kuadrillaren trikitilariak

## 7 | HDM kuadrillaren karroza

### **JASANGARRITASUNA, ZEIN PREZIOZAN?**

Urdaibai Oka ibaiak sortzen duen padura da, 1984. urtetik aurrera Biosfera erreserba eta Hezagtien Babeserako Zona Berezi bezala izendatuta dagoena. Horretaz gain, 1994. urtetik aurrera “Red Natura 2000” programaren barruan sartuta dago. Euskal Herriko hezegune garrantzitsuena da, hainbat hegaztiren zako babesgune izanez migrazio garaian zehar.

2008tik aurrera hainbat proposamen egin dira Bilboko Guggeheim bigarren museo bat bertan eraikitzeko, baina aurrean hasi dira proiektu hau aurrera eramateko lehen pausoak ematen.

Bertan museoa jartzeko proposamena egin duten taldeek aitortzen dute eraikina ez dela urtea osatzen duten hilabete guztietan irekita egongo eta bisita kopuru mugatua izango duela.

Honen aurrean, Busturialdea eskualdean hainbat plataforma sortu dira proiektu honen aurka, hasiera batetik kolokan jarri proiektu honek Euskadiko zona natural garrantzitsuenetarikoa hone-tan eragin ditzakeen kalte iraunkor, itzulezin eta natura-ondarearen gaineko eragin nabarmenak aipatuz. Gainera, turisten masifikazioa da proiektu honek dakarren arrisku nagusienetarikoa bat.

Aipaturiko azken puntu honek, beregain hartzen du turistek sortu dezaketen kontaminazioa eta zaborra Urdabai padura osatzen duten ugaztunen etxea arriskuan jartzea eta ondorioz biosfera suntsitzeko/biosferarekin amaitzeko aukera izatea.

Jakina da, beste herrialde batzuetan Guggenheim-Urdabai proiektua ezin izango litzakeela aurrera eraman, biosfera mantentzea arriskuan jartzen duten arazoak kontutan harturik.

Ondorioz, enplegua, baina zer motatakoa? Jasangarritasuna, zein preziotan?

---

## SOSTENIBILIDAD, ¿A QUÉ PRECIO?

Urdaibai es la marisma que genera el río Oka, declarada desde 1984 como Reserva de la Biosfera y Zona Especial de Protección de las Aves. Además, desde 1994 está incluido en el programa "Red Natura 2000". Se trata del humedal más importante del País Vasco, constituyendo un refugio para numerosas aves durante la migración.

A partir de 2008 se han realizado varias propuestas para la construcción de un segundo museo, el Guggenheim de Bilbao, pero este año se han empezado a dar los primeros pasos para llevar a cabo este proyecto.

Los grupos proponentes de instalar allí el museo reconocen que el edificio no estará abierto todos los meses que componen el año y que tendrá un número limitado de visitas.

Frente a ello, en la comarca de Busturialdea se han creado diversas plataformas en contra de este proyecto, comprometiéndose desde un primer momento las afecciones permanentes, irreversibles y evidentes sobre el patrimonio natural que este proyecto puede ocasionar en esta de las zonas naturales más importantes de Euskadi. Además, la masificación de turistas es uno de los principales riesgos que conlleva este proyecto.

Este último punto asume la posibilidad de que los turistas pongan en peligro la contaminación y la basura de la casa de los mamíferos que forman la marisma de Urdabai y puedan acabar con la biosfera.

Se sabe que en otros países el proyecto Guggenheim-Urdabai no podría llevarse a cabo teniendo en cuenta problemas que ponen en peligro el mantenimiento de la biosfera.

En consecuencia, empleo, pero ¿de qué tipo? Sostenibilidad, ¿a qué precio?

---

## HDM kuadrillaren trikitilariak

# 8 | ORAIN PRESOKA kuadrillaren karroza

## ETXERA BIDEAN

Beste behin, euskal presoek etxera bidea egiteko duten eskubidea oztopatzen ari direla salatzerira irten gara.

Behin eta berriz, horretarako ardura eta beharrezko informazioa duten Espetxe tratamenduetarako Batzordeen erabakiaren aurka egin du Audientzia Nazionalak, presoek garatu beharreko espetxe ibilbidea eta etxerako bidea oztopatuz.

Auzitegi Nazionalaren eta Ministerio Fiskalaren etengabeko jarrera oztopatzaila eta konfrontatzaileen aurrean, euskal presoek aurka egiten ari den jazarpena salatzen dugu, justizia ez baita bere boterea justiziaz erabiltzen ari, errebantxa eta mendekuz baizik.

3. graduan espetxealdia burutzeko baldintzak betetzen direnean, nekez uler daiteke, ETaren jardueraren amaieratik 12 urte baino gehiago igarota, legeak ezarritako bideari oztopoak jarz-teko jarrera hau, eta iraganeko egoerara itzultzeko nahiarekin baino ezin dugu lotu, halakorik ezin baita bestelakoan ulertu.

Salbuespena indargabetu eta lege arrunta aplikatuz, euskal preso guztiak etxera bidean jartzeko unea da. Gradu-progresioak eta espetxeko baimenak arau izan daitezten, eta ez salbuespena.

## ETXERA BIDEAN

Una vez más queremos denunciar que se está obstaculizando el derecho de las presas y presos vascos de volver a sus casas.

De forma reiterada la Audiencia Nacional se opone a la decisión del Comité de Tratamiento Penitenciario, que es quien tiene la responsabilidad y la información necesaria para tal fin, y entorpece el proceso que deben seguir las presas y presos vascos para su vuelta a casa.

Ante la constante actitud obstruccionista y confrontativa de la Audiencia Nacional y del Ministerio Fiscal, que responde a un carácter revanchista y vengativo, denunciaremos la persecución que se está realizando contra las presas y los presos vascos.

Cuando se cumplen en muchos casos las condiciones para obtener el tercer grado, es difícil de entender, pasados más de 12 años desde el final de la actividad de ETA, esta actitud de poner trabas en el camino establecido por la misma ley y solo se puede asociar al deseo de volver a una época pasada.

En definitiva, es necesario aplicar la ley ordinaria y acabar con la excepcionalidad. Es hora de poner a todas las presas y presos vascos en el camino a casa. Hacer que las progresiones de grado y los permisos sean la norma y no la excepción.

**Etixerako bidea bukatu bitartean, lanean eta kalean jarraituko dugu.  
Ettxera Bidean Oztoporik Ez!!  
PRESOAK ETXERA!!!**

## Otsoak Dantza Taldea (Ataun)

# 9 | AZKENA TA ETXERA **kuadrillaren karroza**

### ZEIN DA BIZITZAREN PREZIOA?

2023ko ekainaren 14an ia 400 pertsona zeramatzan barku bat hondoratu zen itsaso Jonikoan, Grezian. Lehenengo datuen arabera 79 hildako eta ehundaka desagertu utzi zituen gertakariak.

Egun batzuk geroago egunkari guztiek Titan urpekariaren desagerepenaren berri eman zuten. Urpekarian bost pertsona omen zeuden, baina haien nahikoa izan ziren hainbat herrialdetako barku eta hegazkin espezializatu bilaketa lanetarako mobilizatzeko. Bilatzen eta erreskatatzen saiatu ez ziren ehundaka pertsonen eta urpekari barruko bost pertsonen artean bi desberdintasun zeuden: dirua eta jatorria. Diruak eta jatorriak erabaki zuten ehundaka gizon, haur eta emakume itsasoan galduta uztea eta diruak eta jatorriak erabaki zuten hondoraketa ikaragarri hark komunikabideetan oihartzunik ez izatea.

Urte asko dira jada agintariak laguntza material falta argudiatzen dutela milaka errefuxiatu ur hotzetan galtzen uzteko, baina bost gizon aberats desagertu ziren egunean erakutsi ziguten balibideak ugariak direla, diruak eta jatorriak erabakitzen badute ere zeinentzat diren.

### ¿CÚAL ES EL PRECIO DE LA VIDA?

El 14 de junio de 2023 una embarcación que llevaba casi 400 personas a bordo naufragó en el Mar Jónico, en Grecia. Según los primeros datos el suceso dejó 79 fallecidos y cientos personas desaparecidas.

Unos días más tarde varios medios se hicieron eco de la desaparición del submarino Titán. En él viajaban cinco personas, pero esas cinco fueron suficientes para movilizar barcos y aviones especializados de varios países.

Entre las personas que no intentaron encontrar y rescatar y entre las cinco personas del submarino había dos diferencias: el dinero y el origen. El dinero y el origen decidieron dejar que cientos de hombres, niños y mujeres se perdieran en el mar y el dinero y el origen decidieron que este naufragio no tuviera eco en los medios de comunicación. Los representantes políticos llevan muchos años argumentando falta de material y recursos para justificar el naufragio de miles de refugiados en el mar, pero el día que cinco hombres millonarios desaparecieron nos mostraron que los recursos son varios, aunque no para todos.

# 10 | BITARTEAN elkartearen karroza

### **GUK UZ MERKATARITZA GUNEA AUKERATZEN DUGU, ETA ZUK?**

Gure herriek merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu enpresen gune erakargarria osatzen dute, eta orain arte egin duzun bezalaxe, Urretxu Zumarraga aukeratzen jarrai dezazun nahiko genuke.

#### **Zergatik?**

- Gurean arituak eta adituak garelako. Zure eguneroko bizitza hobetzen laguntzeko gure gaitasunean sinesten dugu. Horregatik, produktuez eta zerbitzuez gain gure ezagutza zurekin konpartitzen jarraitu nahi dugu.
- Etengabe egoera berrietara egokitzen eta eguneratzen dihardugulako. Oinarri sendoa dugu eta egiten duguna maite dugu.
- Herriarekin konpromisoa dugulako. Herria bizi behar dela uste dugu, eta zurekin batera herria bizi nahi dugu!
- Bizilagunak garenez elkar ezagutzen dugulako. Bizilagunen arteko harremanean sinesten dugu. Zurekin batera taldea osatu nahi dugu.
- Ezberdinak garelako eta ezberdintasuna maite dugulako.

Bi-Tartean Elkarteak 33 urte bete ditu aurten eta zurekin ospatu nahi dugu!

---

### **NOSOTRAS Y NOSOTROS ELEGIMOS EL ESPACIO COMERCIAL UZ, ¿Y TÚ?**

Nuestros pueblos conforman un atractivo espacio comercial, hostelero y de empresas de servicios, y tal como lo has venido haciendo hasta ahora, nos gustaría que siguieras eligiendo Urretxu Zumarraga.

#### **¿Por qué?**

- Porque somos expertas y expertos en nuestra materia. Creemos en nuestra capacidad para ayudarte a mejorar tu día a día y por eso queremos seguir compartiendo contigo nuestro conocimiento.
- Porque estamos continuamente adaptándonos y actualizándonos a nuevas situaciones. Tenemos una base sólida y vivimos nuestra profesión con pasión.
- Porque tenemos un compromiso con el pueblo. Creemos que hay que vivir el pueblo... ¡y queremos vivirlo contigo!
- Porque nos conocemos. Creemos en la relación entre vecinas y vecinos. Contigo formamos un equipo.
- Porque somos diferentes y amamos la diferencia.

La asociación Bi-Tartean ha cumplido 33 años ¡y queremos celebrarlo contigo!

BI-TARTEAN, Asociación de Comerciantes, Hosteler@s y Empresari@s de Servicios de Urretxu y Zumarraga

---

## “Secundino Esnaola” Musika Eskolako musikariak